

## 1. PRÓLOGO / HITZAURREA

### A modo de presentación / Hitzaurre gisa

Con motivo del vigésimo aniversario de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera, aprobada por el Parlamento Vasco en 1982, la Fundación Fernando Buesa organizó las II Jornadas de Reflexiones Sociales, que se celebraron en el Palacio de Villa Suso de Vitoria-Gasteiz el 19 y 26 de noviembre y 3 de diciembre de 2002.

Fiel a uno de sus principales objetivos, la Fundación quería servir de cauce y foro para la discusión, en este caso acerca de uno de los asuntos de más relevancia para la gente.

Ahora, un año después, es grato poder ofrecer lo que en términos académicos serían las Actas de aquellas Jornadas, es decir, el reflejo en papel de lo que en aquellos días se dijo, de modo que la reflexión y la discusión lleguen a todos los lectores interesados, jóvenes y no tan jóvenes, de cualesquiera ideologías, trabajadores en esto o aquello, y de dentro o fuera de Vasconia.

Para ser sincero, debo decir lo que muchos pensábamos a lo largo del año: que era llamativa la poca atención que el aniversario suscitaba, siendo como

somos tan dados a las celebraciones cuando llegan cifras más o menos redondas. Particular extrañeza producía la ausencia de actos parecidos por parte de las autoridades políticas, pese al enorme impacto de la *Ley* en la sociedad vasca. Se me escapan las razones, pero cabe recordar que la calidad democrática se manifiesta en pensar y repensar las medidas políticas, sopesar sus ventajas e

●

**M**endeetako morrontzaren ondoren (tarteak tarte), 1982an lortu zuen euskarak lege bat, hiru probintzietako gizartean behar den bezala bizitzeko eta bizirauteko.

Egokiera ona zen ibilitako bideari begiratu bat emateko. Eta hori egin zen hiru egunetan, jende adituaren eskutik. Eta, besteak beste direla, aditu izateak esan nahi zuen lege haren sortzean parte hartu izana.

Gogoeta-gune eta gogoeta-bide izateko jaio zen Fernando Buesa Fundazioa. Haren ahaleginak apalak dirateke,

inconvenientes, analizar sin miedo todos los puntos conflictivos y sacar las conclusiones pertinentes. Y eso es lo que se pretendía con estas *Jornadas*, aunque, como es natural, en tres días era imposible abrazar todos los problemas.

Nos sentiremos orgullosos si estas páginas son instrumento idóneo para seguir en ese camino y si este libro es consultado con interés.

●

baina irmo jarraitu nahi du bide horretan barrena, ongi dakielarik hondamendira doala pentsatzeari muzin egiten dion gizakia edo gizartea. Eta ez dira gauza asko, nik uste, hizkuntza bezain garrantzitsuak, hizkuntza baita gizakitasunera garamatzana.

Ibil bedi liburu hau eskuz esku, pentsakizunak eta langaiak eskainiz. Hain zuzen ere, hizlarien esanetan ez ezik, eranskinetan aurkituko ditu irakurleak testu interesgarri anitz, hain ahanzkor dirudien Herri honetan behar-beharrezkoak. □

**Henrike Knörr**

## 2. INTRODUCCIÓN

Con este segundo número del *Cuaderno de Reflexiones Sociales* la *Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioa* presenta los contenidos que fueron abordados en las *II Jornadas de Reflexiones Sociales*, dedicadas a *La normalización del uso del euskera* y celebradas en el Palacio Villa Suso de Vitoria-Gasteiz en el transcurso de tres sesiones realizadas entre los meses de noviembre y diciembre del año 2002.

Se cumplía el 20 aniversario de la aprobación por el Parlamento Vasco de la *Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera / Euskararen erabilpena arauzkotzezko onarrizko legea*. Y la *Fundación* estimó conveniente y oportuno abordar la efemérides de este instrumento legal,

## 2. SARRERA

*Gizarte gogoetarako koadernoak* argitalpenaren bigarren zenbaki honekin, *Gizarte Gogoetarako II. Jardunaldietan* landutako edukiak aurkezten ditu *Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioak*. Jardunaldi haietako gaia *Euskararen erabileraren normalizazioa* izan zen, eta Gasteizko Goiuri jauregian egin ziren, hiru saiotan, 2002ko azaroan eta abenduan.

Hogei urte bete ziren Eusko Legebiltzarrak *Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera / Euskararen erabilpena arauzkotzezko Oinarrizko legea* onartu zuenetik. Eta *Fundazioak* komenigarri eta egoki iritzi izan zion lege tresna horren urteurrenari heltzea. Izan

decisivo para orientar la política lingüística y, en consecuencia, para determinar un ámbito de la interacción colectiva de vital significación para el presente y el futuro de la sociedad vasca.

Un año antes, en el invierno de 2001, la Fundación *Fernando Buesa Blanco Fundazioa* decidió analizar y debatir el Estatuto de Autonomía del País Vasco: marco para la convivencia y la articulación de la ciudadanía de esta Comunidad Autónoma.

Los contenidos generados en las tres sesiones que fundamentaron las *Jornadas de Reflexiones Sociales* se recogieron en el número 1 de la colección *Cuadernos / Koadernoak*. En palabras de Xabier Markiegi<sup>1</sup>, como moderador de la primera sesión, se trató de formular y responder a la pregunta: “¿Puede el Estatuto de Autonomía seguir siendo un factor de salud colectiva en cuanto que favorece la conciliación de referentes identitarios o

ere, erabakigarria izan da hizkuntza politika gidatzeko, eta, ondorioz, Euskadiko gizartearen oraina eta geroa erabat baldintzatzen duen gizarteko elkarrekintza eremu bat zehazteko.

Urtebete lehenago, 2001eko neguan, *Fernando Buesa Blanco Fundazioak* erabaki zuen Euskadiko Autonomia Estatutua (autonomia erkidego honetako hiritarren bizikidetzarako eta egituraketarako esparrua) aztertu eta eztabaidatzea.

*Gizarte Gogoetarako I. Jardunaldiak* eratu zituzten hiru saioretan sortutako edukiak *Cuadernos / Koadernoak* bildumako 1. zenbakian jaso ziren. Xabier Markiegiren<sup>1</sup>, lehenengo saioko moderatzailearen hitzetan, galdera hau egitea eta erantzutea izan zen ardatza: “Estatutua osasun kolektiboko faktore izan al daiteke, hainbat identitate edo nazio erreferente bateratzea ahalbidetzen duen aldetik?”. Plazaratutako itauna gaur are

---

1 Xabier MARKIEGI: “El espíritu fundacional del Estatuto de Autonomía de Gernika” (2002: 41).

nacionales diversos?”. El interrogante planteado se mostrará hoy aún más *abierto* (o *cerrado*): convertido implícita y explícitamente en eje del debate político actual.

En el caso de este segundo número de los *Cuadernos*, las *Jornadas de Reflexiones Sociales* que trataron *La normalización del uso del euskera* lo hicieron con la misma fórmula que la utilizada en las *Jornadas*: doce ponentes intervinieron bajo la coordinación de las tres personas que moderaron cada una de las tres sesiones.

La primera sesión se centró en *La génesis de la normativa de normalización del uso del euskera: antecedentes, marco constitucional y estatutario, las claves del acuerdo*. Su coordinador y moderador fue Henrike Knörr y los ponentes: Pedro Miguel Etxenike, José Luis Lizundia, José Antonio Maturana y Pedro Sancristóval.

En su intervención, H. Knörr se refirió a las dos condiciones necesarias (“pero no suficientes”) para lograr la buena salud de un idioma. Junto al proceso de

*irekiagoa* (edo *itxiagoa*) agertuko da: implizituki eta esplizituki egungo politikako ardatz bihurtuta.

*Koadernoak* argitalpenaren bigarren zenbakian, *Gizarte Gogoetarako Jardunaldiek* (*euskararen erabileraren normalizazioa-ri buruzkoak*) I. *Jardunaldien* formula berbera erabili zuten: hamabi hizlarik esku hartu zuten, hiru saioak moderatzen aritu ziren beste horrenbeste pertsonak koordinatuta.

Lehenengo saioaren gaia izan zen *Euskararen erabilera normalizatzeko araudiaren sorrera: aurrekariak, Konstituzioaren eta Estatutuaren esparrua, akordioaren giltzarriak*. Koordinatzaile eta moderatzaile Henrike Knörr izan zen, eta hizlariak ondorengo hauek: Pedro Miguel Etxenike, Jose Luis Lizundia, Jose Antonio Maturana eta Pedro Sancristoval.

Bere esku-hartzean, H. Knörrek adierazi zuen badirela bi baldintza hizkuntza batek, osasuntsu izango bada, ezinbesteko dituenak (“nahikoa ez, ordea”).

*normalización* (identificado con la fecha en la que fue aprobada la Ley: 1982), aludió a la *normativización*: indispensable para establecer las reglas lingüísticas que velen por el uso correcto de la lengua (y cuyo proceso lo asocia en sus inicios con el congreso de Euskaltzaindia celebrado en Aránzazu, en 1968, en torno al euskera unificado).

La segunda sesión incidió en los *Veinte años de la Ley de Normalización del uso del euskera. Una mirada social retrospectiva. Balance de la normalización del euskera desde la sociedad vasca: la educación, la cultura, la economía. Percepciones y su valor*. Su coordinadora y moderadora fue Begoña Muruaga y las ponencias estuvieron a cargo de Fermín Barceló, Koldo Biguri, Andoni Unzalu y Anjel Lertxundi.

En su introducción, B. Muruaga avanzó y reseñó el contenido de las ponencias de su Mesa. Recordó que lo realizado en los últimos 20 años en el plano lingüístico responde no sólo a una “determinada

*Normalizazio* prozesuarekin batera (*Legea* onartu zeneko urtearen zenbakiarekin —1982 zenbakiarekin, alegia— identifikatua), aipagai izan zuen *arautzea*: noraezekoa da, hizkuntza zuzen erabiltzeko hizkuntza arauak ezartzeko (prozesu hori, hastapenetan, Euskaltzaindiak Arantzazun 1968an euskara batuari buruz egindako biltzarrekin elkartu zuen).

Bigarren saioaren gaia, berriz, hau izan zen: Euskararen Erabilera Arautzeko Legearen *hogei urte. Gizarte-begiratura iraganerantz. Euskararen normalkuntza prozesuaren balantzea, Euskadiko gizartearen ikuspegitik: hezkuntza, kultura, ekonomia. Gizarte-hautemateak eta haien balioa*. Koordinatzaile eta moderatzaile Begoña Muruaga izan zen, eta hizlariak, aldiz, Fermin Barcelo, Koldo Biguri, Andoni Unzalu eta Anjel Lertxundi.

Sarrerako hitzetan, B. Muruagak mahai hartako hitzaldien edukia aurreratu eta azaldu zuen. Gogora ekarri zuen azken hogeitun urtean hizkuntzaren arloan egindakoa ez dela soilik “borondate

voluntad política” o a “la aplicación de determinadas políticas”, sino que también obedece a la dejación por parte de grupos políticos y colectivos sociales. Asimismo, resaltó la importancia de que el euskera sea percibido como un elemento de *construcción social* (y no en cambio *nacional*), y pueda ser un factor integrador, esto es: “que la política lingüística no se haga contra nada ni contra nadie sino pensando en todos y en la convivencia”.

La tercera sesión se orientó al *Presente y futuro del euskera. Perspectivas de desarrollo. Su valor para la integración y la convivencia*. Intervino como coordinadora y moderadora Ana Aizpiri, y contó con los ponentes Javier Nogales, Juan José Larrea, Felipe Juaristi y Maite Pagazaurtundúa.

En su intervención, A. Aizpiri observó en lo positivo y como balance *la extensión territorial* lograda, así como “la emergencia de toda una generación que ha crecido alfabetizándose en euskera”.

politiko jakin batekin” edo “politika jakin batzuk aplikatuz” egindako lanaren ondorioa, baizik eta, orobat, politikako eta gizarteko talde batzuek egin ez dutenaren emaitza ere badela. Era berean, nabarmendu zuen garrantzitsua dela euskara *gizarte eraikuntzako* (ezen ez *nazio eraikuntzako*) elementutzat haute-mana izatea, eta faktore integratzailea izateko aukera izan dezala, hau da: “hizkuntza bizikidetzak ez dadila egin ezeren eta inoren kontra, baizik eta herritar guztiak eta bizikidetzak gogoan izanik”.

Hirugarren saioaren gaia izan zen *Euskararen oraina eta geroa. Garapenerako ikuspegiak. Integraziorako eta bizikidetzako duen balioa*. Koordinatzaile eta moderatzaile Ana Aizpiri izan zen, eta hizlariak ondorengo hauek: Javier Nogales, Juan Jose Larrea, Felipe Juaristi eta Maite Pagazaurtundua.

Bere mintzaldian, A. Aizpirik, alde onuragarritik begiratuta eta balantze gisa, lortutako *lurralde hedapena* azaldu zuen, bai eta “euskaraz alfabetizatuz hazidena belaunaldi oso baten agerpena” ere.

No obstante, alerta sobre los riesgos de la *ideologización*, la *inmadurez* y la *mistificación*, que pueden dañar al euskera, aquejado por las disputas políticas o por una sobrecarga de *simbolismo ideológico*, cuando no, “en el peor de los casos” erigido en “vehículo de mensajes de violencia y amenaza”.

Dena dela, euskarari kalte egin diezaioketen arriskuez ohartarazi zuen, hau da, *ideologizazioa*, *heldugabetasuna* eta *mistifikazioa* gertatzearen arriskuez. Aizpiriren esanetan, euskarak politikako ika-mikak eta *ideologia sinbolismoa*-ren neurritz gaineko karga nozitzen ditu; eta, “txarreanean”, “indarkeria eta mehatxu mezuen eramaile” bihurtu dute.